

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGUARDIAKO UDALA

Laguardiako hirigintza plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren hasierako onespena, Araban dagoen Laguardia udalerriko "Villa Lucia" 20. eremuari eta hirugarren sektoreko erabilera arautzeari dagokienez

Laguardiako udalbatzak, 2026ko uztailaren 17ko osoko bilkuran, honako hau erabaki zuen:

LEHENENGOA. Hasierako onespena ematea Laguardiako plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntualari, "Villa Lucia" 20. eremuari eta hirugarren sektoreko erabilera arautzeari dagokienez.

BIGARRENA. Espedientea jendaurrean jartzea, eta, ondorioz, baita aldaketa puntualaren dokumentu guztiak ere, ALHAOn eta lurraldean zabalduen dagoen edo zirkulazio gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuta. Horiek guztiak hilabetez egongo dira jendaurrean, iragarkia azkenengoz argitaratzen denetik aurrera zenbatuta.

Epe horretan, espedientea ikusgai egongo da udal bulegoetan, jendea atenditzeko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara. Epe horretan, interesa dutenek beren eskubideak eta interesak defendatzeko egokitzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

HIRUGARRENA. Eragindako interes publikoak kudeatzen dituzten administrazio organo eta erakundeei txostenak, irizpenak eta bestelako erabakiak eskatzea, legez nahitaezkoak badira. Horiek guztiak izapidetze fase honetan eman beharko dira, dagokion legeria sektorialak ezartzen dituen epeetan.

LAUGARRENA. Era berean, jakinarazpena egingo zaie lurraldean garrantzia edo eragina duten eta interes publikoak kudeatzen dituzten organo eta erakunde administratiboei, prozeduran agertu eta interes horiekin lotutako eskakizunak egin ditzaten, egokitzen dituzten badute. Izapide bera egingo da udalerriko administrazio batzarrekin.

BOSGARRENA. Hirigintzako onspen, baimen eta lizentzien emakida eten egiten da horietarako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza araubidea aldatzea dakarten eremuetan, laburpen exekutiboan jasotako xehetasunaren arabera. Etenaldiaren iraupena bi urtekoa izango da, hasierako onspena azkenekoz argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

SEIGARRENA. Lizentzia horiek emateko prozedura eteteko agintzen da, eta erabaki hau pertsonalki jakinaraziko zaie lizentzia eskaerak erabakia hartu baino lehen aurkeztu dituztenei.

<https://laguardia.egoitzaelektronikoa.eus/transparency/e93523d3-b747-461e-850f-8cb78f1fe28c/>.

Laguardia, 2026ko irailaren 1a

Alkate-lehendakaria
RAÚL GARCÍA EZQUERRO